


Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2021eko martxoan aurreko hilaren aldean

2020ko martxoaren aldean, industria-prezioek % 3,5 egin dute gora

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2021eko martxoan aurreko hilaren aldean. Martxoko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 3,5koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2021eko martxoan, honako sektore hauek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak aurreko hilaren aldean: *Kokeriak eta petrolio finntzea* (% 4,5), *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 1,8) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 1,6). Aitzitik, hilabete artean prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 7,6ko jaitsiera), *Botiken fabrikazioa* (% 0,9koa) eta *Ura* (% 0,7koa).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketek zeinu positiboa izan dute denentzat: *Energiaren* prezioak % 3,3 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 1,0, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,1 eta *Kontsumo-ondasunenak* % 0,2 osotasunean, aurreko hilabetearen aldean; izan ere, % 0,2ko igoera izan da bi azpisektoreetan, hala *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorretan* nola *Kontsumo-ondasun iraunkorretan*.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021eko Martxoa

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021mar / 2021ots	2021mar / 2020mar
INDIZE OROKORRA	104,9	1,1	3,5
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	105,9	0,6	-1,8
Manufaktura-industria	106,2	1,1	4,4
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	106,6	0,4	2,1
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	100,0	-7,6	-9,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	104,0	0,2	-0,5
Kokeak eta petrolio fintzen	105,3	4,5	23,8
Industria kimikoa	110,6	-0,4	2,9
Botiken fabrikazioa	112,3	-0,9	2,9
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,0	0,0	-0,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	108,6	1,8	6,0
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	109,0	-0,3	6,9
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	107,3	0,0	2,3
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,7	0,4	-1,6
Garraiorako materialen fabrikazioa	107,2	0,0	-0,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,9	0,4	0,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	96,9	1,6	-1,5
Ura	107,6	-0,7	-0,3
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	107,4	0,2	2,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,8	0,2	1,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	107,9	0,2	2,6
Ekipo-ondasunak	107,8	0,1	-0,1
Bitarteko ondasunak	105,7	1,0	3,4
Energia	101,5	3,3	10,5

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan, 2021eko martxoan, 2020ko martxoaren aldean, prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolio fintzea* (% 23,8ko igoera), *Produktu informatiko, elektronikoko eta optikoen fabrikazioa* (% 6,9ko igoera) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 6,0ko igoera). Prezioen jaitsierarik handienak, ostera, honako sektore hauei dagozkie: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 9,5eko jaitsiera), *Erauzketa-industriak* (% 1,8koa) eta *Makineria eta ekipoen fabrikazioa* (% 1,6koa).

Helburu ekonomikoaren arabera ondaskun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da *Energian* (% 10,5eko igoera), *Bitarteko ondasunetan* (% 3,4koa) eta *Kontsumo-ondasunetan* osotasunean (% 2,4koa). Azken horretan *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 2,6 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 1,0. Aitzitik, urte arteko terminoetan, *Ekipo-ondasunak* % 0,1 jaitsi dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62